

CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CREDITOREN BATZAR NAGUSIAREN ARAUDIA

2015eko apirilaren 18a.

*Araudiaren onarpena: 2014.04.05eko Batzar Nagusia
24. artikulua (5. atala eta 7. atal berria) eta 25. artikulua (4,
5 eta 6. atalak eta 7. atal berria): 2015.04.18ko Batzar Nagusia*

AURKIBIDEA

I. TITULUA - SARRERA	3
1. Artikulua - Esparru objektiboa	3
2. Artikulua - Helburua	4
3. Artikulua - Esparru subjektiboa	4
4. Artikulua - Araudiaren norainokoa	4
5. Artikulua - Hedapena	4
6. Artikulua - Indarraldia, interpretazioa eta aldaketa	4
7. Artikulua - Batzarrei buruzko alderdi orokorrak	5
8. Artikulua - Webgune korporatiboa	5
II. TITULUA - BATZAR NAGUSIA	7
9. Artikulua - Deialdia	7
10. Artikulua - Funtzionamendua	9
11. Artikulua - Bazkideek informazioa jasotzeko eta parte hartzeko eskubideak	10
12. Artikulua - Joateko eskubidea	11
13. Artikulua - Norberaren izenean joatea	12
14. Artikulua - Ordezkarri bidez joatea	12
15. Artikulua - Hirugarrenak joatea	13
16. Artikulua - Antolakuntza	14
17. Artikulua - Eratu eta gauzatzea	15
18. Artikulua - Luzatu eta etetea	17
19. Artikulua - Erabakiak bozkatzea	18
20. Artikulua - Erabakiak hartu eta bukatzea	21
21. Artikulua - Akta	21
22. Artikulua - Ordezko jarduera-araubidea	22
III. TITULUA - ERABAKI SOZIALEN PUBLIZITATEA	22
23. Artikulua - Erabaki sozialen publizitatea	22
IV. TITULUA - KONTSEILARIAK IZENDATZEA	23
24. Artikulua - Kontseilariak izendatzea	23
25. Artikulua - Kontseilariak izendatzeko prozedura	24

I. TITULUA - SARRERA

1. Artikulua - Esparru objektiboa

Araudi hau CAJA LABORAL POPULAR, COOP. DE CRÉDITOren –aurrerantzean “Entitatea”, “Kooperatiba” edo “LABORAL Kutxa”– Batzar Nagusiak onartu du, Kooperatibako gobernu-organoek beren antolakuntza eta funtzionamendua arautzea erabaki dutelako. Barne-araubidea zeharo egokituko da, kreditu-kooperatibek zein bigarren mailako merkatuetan negoziatutako baloreak jaulkitzen dituzten sozietateek bete beharreko gobernu korporatibo oneko jardunbidera. Horrela, LABORAL Kutxaren gestio gardena bermatu eta horren kooperatiba-izaera oinarri duten helburuak bete ahal izango dira.

Proposatutako helburuarekin bat etorriz, Araudi honek autorregulatu beharreko alderdiak garatzen ditu, hain zuzen ere gardentasunari eta gobernu korporatibo onari buruzko gomendioen arabera aldatzeko eta egokitzeko araubide malgu baten eraginpean dauden alderdiak. Ildo horretan, Araudiak honako helburu hauek ditu:

- (i) Batzar Nagusiaren funtzionamendua eta jarduera gidatuko duten arauak finkatzea, Legean edo Estatutuetan jasotako aginduak garatuz, indarreko legediak horretarako aukera ematen duen heinean.
- (ii) Bazkideen eskubideak eta betebeharrak zehaztea, Batzar Nagusiaren funtzionamenduaren eta garapenaren esparruan eta Legeak eta Estatutuek agindutako eskubide eta betebeharren eremuan.
- (iii) Prozedura-alderdiak finkatu edo arautzea.

2. Artikulua - Helburua

Araudi honen helburua hauxe da: Batzar Nagusian jarraitu beharreko jardunbiderik egokienak garatzea, betiere indarreko legedia eta Kooperatibaren Estatutu Sozialak errespetatuz, horiek Araudi honen gainetik egongo baitira beti.

3. Artikulua - Esparru subjektiboa

Kooperatibako bazkide diren pertsona guztiek, fisiko eta/edo juridikoek, eta horien ordezkariak bete behar dute Araudi hau, baita, hala badagokio, Kontseilu Errektoreko kide guztiek eta edozergatik Batzar Nagusietara joaten direnek (“lotutako pertsonak”) ere.

4. Artikulua - Araudiaren norainokoa

Araudi honetako aginduak “lotutako pertsona” guztiek bete beharrekoak dira. Horiek askatasunez onartu eta bere egiten dituzte aginduak.

Araudi honi lotutako pertsonak ezagutu eta bete egin behar dituzte horren edukia eta bertan jorratzen den gai bakoitzarentzat ezarritako prozedurak.

5. Artikulua - Hedapena

Kooperatibako bazkideek eta Kontseilu Errektoreko kideek Araudia ezagutu, bete eta betearazi egin behar dute. Horretarako, Araudiaren ale bat Kooperatibaren egoitza sozialean eta webgunean egongo da, interesatuen artean hedapen zabala bermatzeko.

6. Artikulua - Indarraldia, interpretazioa eta aldaketa

1. Araudi hau onartzen denetik aurrera, ohiko zein aparteko Batzar Nagusietan aplikatuko da.

2. Batzarreko lehendakariak ahalmena izango du, Batzarrean zehar Araudiaren aplikazioan edo interpretazioan sor daitezkeen zalantzak edo ezadostasunak ebazteko. Gainerako zalantzak edo ezadostasunak Kontseilu Errektoreak ebaztiko ditu. Araudi honen aplikazioak eta interpretazioak bat etorri behar du arau juridikoak interpretatzeko irizpide orokorrekin, Kooperatibaren Estatutu Sozialen espirituarekin eta xedearekin, merkataritzaren eta finantzaren alorreko legeria aplikagarriarekin eta, bereziki, gobernu korporatibo onaren irizpide eta gomendioekin.
3. Kontseilu Errektoreak, kontu-hartzaileek, Kontseilu Sozialak –gutxienez kideen bi herenen gehiengoak onartutako erabakiaren bidez– edo jarraian zehaztuko den bazkide kopuruak Araudia aldatzeko eskatu ahal izango diote Batzar Nagusiari, egokia edo beharrezkoa irizten badiote. Bazkideek Araudia aldatzeko proposamena bideratu ahal izateko, gutxienez bazkideen % 5ek edo 200 bazkidek sinatu behar dute, eskaera egiteko unean.

Araudia aldatzeko eskatuko den gehiengoa Estatutu Sozialak aldatzeko eskatutako bera izango da.

7. Artikulua - Batzarrei buruzko alderdi orokorrak

Batzar Nagusiak ohikoak edo apartekoak izan daitezke. Arautegi aplikagarrian eta Estatutu Sozialetan zehaztutako eskumenak izango dituzte eta, deialdia egiteko, arau horiek beteko dituzte.

8. Artikulua - Webgune korporatiboa

LABORAL Kutxaren webgune korporatiboan, “Informazio korporatiboa” atalean, honako hauek egongo dira:

1. Kooperatibaren Estatutuak.
2. Batzar Nagusiaren Araudia.

3. Kontseilu Errektorearen Araudia.
4. Jokabideen Barne Arautegia, balore-merkatuaren esparruan.
5. Kode Etikoa eta Jokabide Profesionalaren Kodea.
6. Gobernu korporatiboaren urteko txostenak.
7. Onartutako urteko kontuen memoriak eta dagozkien ikuskaritza-txostenak.
8. Batzar Nagusietarako deialdiak, deialdi-iragarkiaren edo -agiriaren eta gai-zerrendaren kopia osoa erantsita.
9. Batzarrera joateko behar den ordezkaritza emateko bitartekoak eta prozedurak.
10. Kooperatibaren eta bazkideen artean dauden komunikazio-bideak eta, zehazki, informazio-eskubidea erabiltzeko behar diren azalpenak, baita bazkideek informazioa lortzeko erabil ditzaketen posta-helbidea eta/edo helbide elektronikoa ere.
11. Ohiko eta aparteko Batzar Nagusietarako euskarri-agiriak, honako informazio hauekin: Kontseilu Errektoreak edo bazkide proposamengileak aurkeztutako erabaki-proposamenak, proposamenen justifikazio-txostenak eta bazkideek bozkatzeko behar duten informazio nabarmen guztia.
12. Batzarren emaitzari buruzko informazioa, Batzarra eratzean zegoen bertaratu kopuruari buruzkoa, hartutako erabakiei buruzkoa eta, gai-zerrendako proposamen bakoitzari dagokionez, emandako boto kopuruari buruzkoa eta aldeko eta aurkako boto kopuruari buruzkoa.

Kontseilu Errektoreak beharrezko prozedura guztiak ezarri ahal izango ditu, bazkide ez diren hirugarrenek informazio korporatiboa eskuratzea eragozteko iragazkiak jartzeko, legez hori egin badaiteke, badin eta informazio hori sentikorra dela edo, Kooperatibaren mesedean, erreserbatuta gordetzea komeni dela uste badu.

II TITULUA - BATZAR NAGUSIA

9. Artikulua - Deialdia

Kontseilu Errektoreak edo Estatutuen arabera horretarako eskumenak dituzten pertsona edo organoek egingo dute Batzar Nagusirako deialdia.

Batzar Nagusirako deialdiak indarreko arautegian eta Estatutu Sozialetan agindutakoa beteko du, komunikabideetan behar besteko aurrerapenez argitaratzeko beharrari dagokionez.

Deialdiak, edozein agiriren bidez ematen dela eta edozein komunikabidetan argitaratzen dela ere, honako informazio hau jasoko du eta arau hauek beteko ditu:

1. Indarreko legeriak eskatutakoak:

- a. Batzarraren eguna, ordua eta lekua, bai lehen deialdian bai bigarren deialdian.
- b. Kontseilu Errektoreak proposatutako gai-zerrenda eta, horretan, nahitaez, bazkideek Kontseilu Errektoreari galderak edo iradokizunak egitea ahalbidetzen duen puntua.
- c. Kontu-hartzaileek, Kontseilu Sozialak –gutxienez kideen bi herenen gehiengoak onartutako erabakiaren bidez– edo gutxienez bazkideen % 5ek edo 200 bazkidek eskatutako gai-zerrendako puntuak, deialdia argitaratu ondoren beranduenik zortzigarren egunean egiten badute eskaera.
- d. Deialdiaren epean zehar, ekitaldi bakoitzeko finantzetako egoera-orriak (Batzarrean onartu behar badira) eta Batzarrak erabaki behar dituen gainerako agiriak bazkideen esku jartzea, egoitza sozialean, jarduera garatzen den zentro bakoitzean eta webgunean, eta deialdi-idazkian horren berri ematea.

2. Araudi honek eskatutakoak:

- a. Ordezkapen-eskubideari buruzko informazioa, baita ordezkapena emateko behar diren eredu edo agiri idatziak eskuratzeko moduari buruzkoa ere.
- b. Partaideak behar bezala identifikatzeko behar den dokumentazioari buruzko informazioa, Araudi honetan aurreikusitakoaren arabera.
- c. Kontseilu Errektoreak edo gai-zerrendan puntua sartzeko eskatu duen pertsonak nahiz organoak aurkeztutako erabaki-proposamena, eta Kontseilu Errektoreak edo gai-zerrendako puntuaren proposamengileak formalki landutako justifikazio-txostenak edo proposamenaren euskarriak. Helburu horrekin, gai-zerrendako proposamen bakoitzarekin batera, agiri edo txosten hauek aurkezten direla bermatuko du Kontseilu Errektoreak: proposatutako erabakiaren eduki osoa jasotzen duen agiria eta proposamena arrazoitzen duen txostena edo agiria, nahiz eta indarreko arautegiak agiri edo txosten horiek aurkezteko espresuki ez agindu.
- d. Bertaratuen atzerapenak Araudi honen 13. artikuluan aurreikusitako ondorioak ekarriko dituela jakinarazteko oharra.
- e. Informazioa jasotzeko eskubidea erabiltzeko modua, alegia galderak eginez erantzuna jasotzekoa, Araudian aurreikusitakoari jarraiki.
- f. Itzulpen-baliabideei, ikus-entzunezko grabazioari eta aretoen arteko konexioari buruzko informazioa, dagokionean.
- g. Notarioa etortzea aurreikusita badago, horri buruzko argibideak.

Batzar Nagusirako deialdia webgunean argitaratuko da, Estatutu Sozialek beste komunikabideetan argitaratzeko agindutako gutxieneko eta gehieneko aurrerapen berarekin.

10. Artikulua - Funtzionamendua

Kontseilu Errektoreak Batzar Nagusia normaltasunez gauzatzeko behar diren zereginak zuzendu eta koordinatuko ditu, eta, helburu horrekin, zeregin hauek izango ditu:

1. Estatutu Sozialen arabera, Batzarrera joateko eskubidea duten pertsonen zerrenda prest dagoela zaintzea, bertaratuen zerrenda ofiziala egiteko arduradunek eskura izan dezaten.
2. Bertaratze-txartelak, ordezkatzeko-txartelak eta bertaratuak identifikatzeko sistema prest daudela egiaztatzea, bertaratuen zerrenda prestatu behar dutenei haien eginkizuna errazteko.
3. Batzar Nagusiaren gai-zerrenda osatzen duten kontu guztiei eta haren kokapenari eta eskuragarritasunari buruzko dokumentazioa eta informazioa kontrolpean izatea, bertaratzeko eskubidea duten pertsona guztiek eskuragarri izan ditzaten.
4. Bertaratuei informazio egokia emateko txostenak eta ikerketak prestatzea, Kontseilu Errektoreak berak horretarako izendatutako kanpoko edo barneko pertsonak lagunduta.

Kontu-hartzaileek zeregin hauek izango dituzte:

1. Bertaratuen zerrenda zehaztea, Batzarra hasi ondorengo 15 minutuetan nortasuna egiaztatzen dutenak barne hartuta, zerrenda sinatzea eta Batzarreko lehendakariak eta idazkariak sinatzeko prest uztea. Bertaratuen zerrendan bereizi egingo dira bazkide kolaboratzaileak eta gainerako bazkideak, eta, talde bakoitzaren barruan, baita bertaratuak eta ordezkatuak ere.
2. Emandako ordezkapenen baliozkotasuna erabakitzea, batez ere ordezkapenok ez badira egin Kooperatibak berariaz emandako txartelen edo idazkien bidez.
3. Kooperatibak bertaratuak identifikatzeko prestatutako sistema erabiltzea edo beste sistema bat ezartzea, betiere sistema horrek bertaratuen eta ordezkatuak quoruma azkar zenbatesteko aukera ematen badu, Estatutu Sozialetan eta indarreko arautegian onartutako moduan.

Batzar Nagusia prestatzeko eginkizunen bat duten pertsona guztiek koordinatuta jardun behar dute, eta Batzarra zuzen gauzatzen dela errazteko betebeharra dute.

Kontseilu Errektoreko lehendakaria eta idazkaria Batzar Nagusiko lehendakaria eta idazkaria izango dira.

Lehendakaririk ez badago, Kontseilu Errektoreko lehendakariordeak beteko du eginkizun hori eta, hori ere egon ezean, Batzarrak bertaratuen artean aukeratzen duenak, bertaratuen zerrenda egin ostean eta gai-zerrendari hasiera eman aurretik.

Idazkaririk ez badago, Batzarrean dagoen Kontseilu Errektoreko kiderik gazteenak beteko du horren eginkizuna eta bestela, Batzarrak bertaratuen artean aukeratzen duenak, lehendakaria aukeratzeko adierazitako prozedura berari jarraituz.

Edozergatik ere Batzar Nagusia egiten ari den bitartean lehendakariak edo idazkariak bertatik alde egin behar badute, horien eginkizunak beteko dituzten ordezkioak aurreko paragrafoetan aurreikusitakoaren arabera izendatuko dira.

11. Artikulua - Bazkideek informazioa jasotzeko eta parte hartzeko eskubideak

Batzar Nagusirako deialdia argitaratzen den egunetik aurrera, bertaratzeko eskubidea duen edozein bazkidek erabaki-proposamenak, txostenak eta gai-zerrendako kontuei buruzko gainerako dokumentazioa ikusi ahal izango ditu egoitza sozialean, jarduera garatzen den zentro bakoitzean eta webgunean, baldin eta Legeak eta Estatutuek informazio hori eskura jartzeko agintzen badute.

Gainera, Estatutu Sozialetan eta indarreko arautegian aurreikusitako moduan, bazkideek gai-zerrendako kontuei buruz egoki deritzen informazio edo argibideak eskatu eta iradokizun edo galderak egin ahal izango dituzte, Batzarraren aurretik edo Batzarrean zehar. Batzarraren aurretik egin beharreko galderak edo kontsultak Kontseilu Errektoreak bideratuko ditu, eta bera arduratuko da horiei Legearen eta Estatutuen arabera arreta eta erantzuna ematen zaiela bermatzeaz.

Batzar Nagusian zehar egiten diren galdera edo kontsultei lehendakariak erabakitzen duenak emango die erantzun egokia. Lehendakariak ahalmen hauek izango ditu:

1. Batzarra bukatzen denetik hilabeteko epean erantzun dadila proposatzekoa, eskaera zailak direla uste badu eta/edo
2. Informazioa hobetzeko edo eman beharreko argibideak errazteko helburuz, Kontseilu Errektoreko kideek edo bertaratutako teknikariek edo hirugarrenek esku har dezatela eskatzekoa.

Edonola ere, Batzarreko lehendakariaren esku egongo da kontsultari ahoz edo idatziz erantzun behar zaion erabakitzea. Dena dela, bazkideak eta lehendakariak eskubidea izango dute informazioa jasotzeko eskubideari buruz egin nahi dituzten adierazpen guztiak Batzarraren aktan jasota uzteko.

Informazioa emateko beharra legez aurreikusita ez badago, Kontseilu Errektoreak uko egin ahal izango dio eskatutako informazioa emateari, baldin eta, bere ustez, informazio horren publizitatea edo hedapena kaltegarria bada Kooperatibaren edo bazkideen interesetarako, edo bazkideen eskaera behin eta berriro oztopoa edo ageriko abusua bada.

12. Artikulua - Joateko eskubidea

Bazkide guztiek izango dute Batzar Nagusira joateko eskubidea, baldin eta Kontseilu Errektoreak deialdia onartzen duen egunean bazkide badira eta Estatutu Sozialetan eta indarreko arauetan berariaz ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

13. Artikulua - Norberaren izenean joatea

Batzar Nagusira joateko eskubidea duten eta norberaren izenean joatea erabakitzen duten bazkideek deialdian adierazitako tokian eta orduan agertu beharko dute, beraien nortasuna behar bezala egiaztatzeko agiri eta guzti. Kooperatibak eskubidea du bere nortasuna behar bezala egiaztatzeko agiriekin ez datorren eta parte hartzeko baldintzak betetzen dituela egiaztatzeko modurik ez duen pertsonari sarrera ukatzeko, kontu-hartzaileen bitartez, eta bazkideek onartu egiten dute eskubide hori.

10. artikuluan adierazitakoari jarraiki eta bilerara joaten diren bazkideak identifikatzeko zeregina errazte aldera, bertaratze- eta ordezkatzetxartelak jarriko dira bazkideen eskura, bai bilera-eguna baino lehen, bai bileraren hasieran, kasu bakoitzean finkatzen den aurrerapenez.

Behin bilera hasitakoan, bertaratzeko eskubidea izanik bere burua egoki identifikatzen duen eta berandu heltzen den bazkideak bileran sartzeko, eta bertaratzeko, informazioa jasotzeko eta bozkatzeko eskubideak erabili ahal izango ditu, baldin eta Batzarra hasi baino 15 minutu beranduago heltzen ez bada. Gainera, kontuan hartuko da quorumerako. Ordu laurdena baino beranduago iristen bada, bertaratzeko eta informazioa jasotzeko eskubideak erabili ahal izango ditu soilik, hau da, ez dute quorumerako aintzat hartuko eta ezin izango du boto-eskubideaz baliatu.

Bileran zehar sartu-irtenak egiten dituzten bazkideek zuhurtziaz handienez eta besteekiko begirunez jokatu beharko dute, eta bileran etenik edo nahasmendurik ez sortzen saiatu. Irten ondoren bilerara itzuli gura duten bazkideek, gainera, beren nortasuna behar bezala egiaztatu beharko dute berriro.

14. Artikulua - Ordezkaritza bidez joatea

Batzar Nagusira joateko eskubidea duten bazkideek aukera dute ordezkari bat izendatu eta, haren bidez, bertaratzeko eta bozkatzeko eskubideak erabiltzeko, Estatutu Sozialetan eta indarreko arautegietan ezarritakoari jarraiki.

Ordezkaritzak bereziak izango dira Batzar Nagusi bakoitzerako, eta ordezkaria eta ordezkaria behar bezala identifikatuta egongo dira, idatziz. Helburu horrekin, 10. artikuluan aipatutako agiri estandarizatuak jarriko dira bazkideen eskura. Batzar Nagusira joan nahi duen ordezkariak ordezkaritza ematen dion agiria eraman beharko du, nortasuna egiaztatzen duen dokumentazioaz gainera.

Pertsona fisiko batek ordezkaria doan eta pertsona juridikoa den bazkidea hartuko da ordezkari bidezko parte-hartzaile gisa. Pertsona fisiko horrek Batzar Nagusi horretarako baimen berezi eta zehatza beharko du, horretarako ahalmen nahikoa duen pertsona batek emana.

Ordezkaritza ezeztagarria da beti. Oro har, bileraren hasieran nahiz bileran zehar ordezkaria agertzea nahikoa da, ordezkaritza automatikoki iraungitzeko. Kasu horretan, ordezkaria joan egin beharko da batzarretik, baldin eta bere izenean edo beste bazkide batzuen izenean ere ez badago.

Ordezkaria saiora joan gabe ordezkaritza ezeztatzeke, beharrezkoa izango da ordezkariaren ezeztapena egiaztatzen duen agiri fede-emailea jasotzea, kooperatibaren helbide sozialean, Batzar Nagusiaren hasiera baino hogeita lau (24) ordu lehenago.

Ezarritako baldintzak zorrozki betetzen ez dituzten ordezkariak baliogabetzat joko dira, eta ordezkariak ezin izango du bilerara joan, behinik behin baimen pertsonala duelako edo baliozko beste ordezkaritza batzuk dituelako joan beharra ez badu. Dena den, kasu horretan, baliogabeko ordezkaritza bidez ordezkariaren bazkidea ez da bertaratu moduan zenbatuko.

15. Artikulua - Hirugarrenak joatea

Indarreko legediak eta Estatutu Sozialek baimendutakoaren arabera bazkideek eskatzen badute, bileran notario bat egongo da ezinbestez.

Kontseilu Errektorekoak ez diren edo aurreko paragrafoan azaldutako notarioa ez diren hirugarrenen partaidetzari buruzko arauak Kontseilu Errektoreak emango ditu, Batzar Nagusia deitzen duenean. Horrela, bada, Kontseilu Errektorearen eskuan egongo da:

1. Batzar Nagusian notarioa behar den ala ez erabakitzea. Edonola ere, kooperatibako bazkideek eta beste organo sozial batzuek ere badute notarioaren parte-hartzea eskatzeko eskubidea, indarreko legediaren eta Estatutu Sozialetan aurreikusitakoaren arabera.
2. Kooperatiban edo kooperatibarentzat lan egiten duten kanpoko pertsonen edo beste edozein hirugarrenen –komunikabideak, analistak, adituak, aholkulariak... barne– parte-hartzea baimentzeko lehendakariak erabiliko dituen arauak finkatzea.
3. Baimendutako pertsonen parte-hartzeari buruzko baldintzak zehaztea. Hau da, Batzar Nagusiko lehendakariak egindako galderei erantzuteko soilik parte hartzen duten ala parte-hartze aktiboa izango duten eta, beraz, Batzar Nagusia egoki gauzatzeko komenigarria dela iruditzen zaienean hitza eskatu ahal izango duten erabakiko du.

Bazkide ez diren hirugarren bertaratuek ez dute, inola ere, boto-eskubiderik izango.

Hirugarren pertsona horien bertaratze-baimena (lehen paragrafoan aipatutako notarioarena salbu) ezeztatu egin ahal izango da, Batzarreko botoen erdia aurkakoa bada.

16. Artikulua - Antolakuntza

Batzar Nagusia Estatutu Sozialetan eta indarreko arautegian aurreikusitakoari jarraiki deialdian adierazitako tokian egingo da.

Bertaratuen segurtasuna eta Batzar Nagusia egoki gauzatzen dela bermatzeko, egokiak iruditzen zaizkion zaintza- eta babes-neurriak (sarbide-kontrolerako sistemak barne) hartuko ditu Kontseilu Errektoreak.

Kontseilu Errektoreak baimena eman badu eta deialdiaren iragarkian edo bilera hasi aurretik erabakia behar bezala jakinarazten bazaie bazkideei:

1. Batzar Nagusiko esku-hartzeak aldi berean itzultzeko bitartekoak erabili ahal izango dira, beharrezkotzat joz gero.
2. Batzar Nagusi osoa edo zati bat grabatu egin ahal izango da.
3. Edozein arrazoiengatik Batzar Nagusiaren bilera hainbat gelatan egin beharra badago, horien artean denbora errealean komunikatzea eta, beraz, ekitaldi bakarra gauzatzea ahalbidetuko duten ikus-entzunezko baliabideak erabiliko dira. Gelok eraikin bakarrean ez badaude, saioa Batzar Nagusiaren Mahaia dagoen lekuan dela ulertuko da, hau da, deialdian berariaz adierazitako lekuan. Adierazitako lekuotara joandakoak Batzar Nagusiko parte-hartzaitzat hartuko dira, Araudian eta Estatutuetan ezarrita dauden baldintzak betetzen badituzte.

Partaideek ez dute, inolaz ere, argazkiak, bideoak nahiz grabaketak egiteko gailurik erabiliko, ezta sakelako telefonorik edo antzekorik ere, Batzar Nagusiaren lehendakariak berariaz kontrakoa baimendu ezean. Bilerara sartzeko tokian, baldintza hori betetzea erraztuko duten kontrol-mekanismoak ezarri ahal izango dira.

17. Artikulua - Eratu eta gauzatzea

Batzar Nagusia eratzeko, lehendakaritzaren eta idazkaritzaren alderdiak ezartzeko, bertaratuen zerrenda osatzeko eta saioa bera gauzatzeko, Estatutu Sozialetan eta indarreko arautegian ezarritako arauak beteko dira.

Batzar Nagusiaren lehendakariak, Araudi honetan aurreikusitakoari jarraiki bertaratze- eta ordezkatzeko-agiriak artatu ostean, egiteko hauek izango ditu: Batzar Nagusia baliozki eratutzat deklaratzeko, geroago azalduko dugunari jarraiki saioa zuzentzea, saioa amaitzea, dagokionean eteteko erabakia hartzea eta, oro har, bilera egoki gauzatzeko beharrezkoak diren ahalmen guztiak erabiltzea, ordenarena eta diziplinarena barne, Estatutuetan aurreikusitakoari men eginez. Araudi honetako 14. artikulua araberak, bertaratzeko baimenak ezeztatzea da salbuespen bakarra.

Batzarraren Mahaia lehendakariak eta idazkariak, bilerara joaten diren Kontseilu Errektoreko kideek eta Estatutuetan jasotako gainerako pertsonak osatuko dute.

Bertaratuek noiz esku hartuko duten erabaki ahal izango du lehendakariak: guztiek batera, bozketak abiatu aurretik, edo gai-zerrendako puntu bakoitzaren inguruan eta horien bozketak egin ahala.

Lehendakariak hitza eskatu ahala emango die partaideei esku hartzeko baimena, eta Araudi honen arabera erantzutea dagokionak erantzun egokia ematen duela bermatuko du, bertaratu bakoitzaren esku-hartzearen ondoren nahiz guztiek esku hartu ostean (deliberamendurako egokiena zer den).

Bertaratzeko eta hitz egiteko eskubidea duen bazkideak edo haren ordezkariak hiru (3) minutuko tarte izango du, hasiera batean, esku-hartze bakoitzerako; alabaina, lehendakariari dagokio hitza erabiltzeko denbora luzatzeko edo mugatzeko ahalmena.

Hitz egiteko eta informazioa jasotzeko eskubidea duten bazkideek esku hartzen dutenean, gai-zerrendako edozein gairen inguruko argibideak eskatu ahal izango dituzte edo proposamenak egin, esku hartzeko txanda bakarra dagoenean. Bestela, une bakoitzean eztabaidatzen ari den gai-zerrendako puntuari buruzkoak izango dira argibide eta proposamenok.

Esku-hartze baten edukia, botoaren nondik norakoa eta, dagokionean, erabakiaren aurkaritza aktan jaso nahi direnean, berriaz eskatu beharko da. Eta esku-hartzea hitzez hitz ager dadin gura bada, testu idatzia idazkariari edo notarioari (baldin eta Batzar Nagusira akta jasotzera joan bada) eman beharko zaio, esku-hartzea baino lehen, erkatu ondoren aktan jaso dezan, salbu eta idazkariak laburtuta transkribatzea erabakitzen badu.

Esku-hartzeari ekin aurretik, hitza eskatu duten bazkideek edo horien ordezkariak izen-abizenak esan beharko dituzte, beren izenean edo bazkide baten ordezkari gisa. Ordezkarien kasuan, beren burua identifikatu beharko dute.

Batzar Nagusia egoki ordenatzeko ahalmenei dagokienez, Estatutuetan jasotako arauak jarraiki, lehendakariak ahalmen hauek izango ditu, besteak beste:

1. Aurreko ataletan adierazi denari jarraiki esku-hartzeak ordenatzekoa.
2. Esku-hartzeetarako finkatutako denbora luzatzeko erabakia hartzekoa.
3. Hitzaren erabilera mugatzekoa, hitza duenak bere jarrera nahikoa adierazi eta argudiatu duela edo gaia behar adina eztabaidatu dela uste duenean.
4. Esku-hartzeak moderatzekoa. Esku-hartzaileari gai-zerrendara mugatzeko eta zuzentasun-arau egokiak erabiltzeko eska diezaioke.
5. Parte-hartzailea ohartaraztekoa, esku-hartzea bidegabea dela, oztopatzeko helburu argia duela edo bileraren garapen egokia nahasten duela iruditzen zaionean.
6. Hitza kentzekoa, esku-hartze bakoitzerako ezarritako denbora amaitutakoan edo, aurreko (4) eta (5) ataletan egindako ohartarazpenak gorabehera, parte-hartzaileak bere horretan jarraitzen badu. Ahalmen hori erabiltzen duenean, bileran ordena zaintzeko beharrezko neurriak hartu ahal izango ditu lehendakariak, baita ordena-zerbitzuek esku hartzea ere.
7. Esku-hartzean zehar behar bezala azalduta geratu ez diren kontuak argi ditzatela eskatzekoa parte-hartzaileei.
8. Bozketen emaitza aldarrikatzekoa.

18. Artikulua - Luzatu eta etetea

Estatutu bidez araututa egon ezean, bertan xedatutakoa bete beharko baita, Batzar Nagusiak saioa luzatzea erabaki ahal izango du, lehendakariaren proposamenari jarraiki. Saio kopurua gorabehera, Batzar Nagusia bakarria izango da, eta akta bakarria jasoko da saio guztietarako. Hortaz, indarreko arautegian eta Estatutu Sozialetan saioa baliozki eratzeko aurreikusitako baldintzak ez dira saio guztietan errepikatu behar.

Eratutako bertaratuen zerrendako bazkideren bat hurrengo saioetara joan ez arren, lehen saioan egindako zerrendako datuetan oinarrituz zehazten jarraituko dira erabakiak hartzeko beharrezko gehiengoak.

Salbuespenez, bileraren ordena egokia urratzen duten istiluak edo aldi batez garapen normala nabarmen oztopatzen duten bestelako gorabeherak gertatzen dinenean, saioa etetea edo denbora-tarte egoki batez (aurrera jarraitzeko beharrezko baldintzak lortu bitartean) beste leku batera eramatea erabaki ahal izango du Batzar Nagusiko lehendakariak. Kasu horretan, egoki irizten dien neurriak hartu ahal izango ditu lehendakariak, eta bertaratuei behar bezalako azalpenak emango dizkie, haien segurtasuna bermatzeko eta berriro bileraren ordena egokia eten dezaketen egoerak saihesteko.

19. Artikulua - Erabakiak bozkatzea

1. Gaia behar adina eztabaidatu dela erabakitzen duenean, bozketara joko du Batzar Nagusiaren lehendakariak.

Lehendakariari dagokio Estatutu Sozialetan aurreikusitakoari jarraiki bozketarako sistema finkatzea. Estatutuetan ezer araututa ez badago, egokiena iruditzen zaion sistema erabaki ahal izango du lehendakariak, kreditu-kooperatiben arautegiko eta Estatutuetako printzipio orokorrei men eginez betiere. Bestalde, bozketa-prozesua artikulu honetan aurreikusitakoa aintzat hartuz zuzenduko du.

2. Erabakiak hartzeko prozesua deialdian aurreikusitako gai-zerrendari jarraiki gauzatuko da. Batzar Nagusiak ebazteko ahalmena duen eta gai-zerrendan agertzen ez diren gaietan proposamenak sortzen badira, indarreko arautegian aurreikusitakoari eta Estatutu Sozialei jarraiki, lehendakariak erabakiko du horiek zer ordenatan bozkatu.

Gai-zerrendako puntuak bakoitza bere aldetik bozkatuko dira. Era berean, loturarik ez duten gaiak bakoitza bere aldetik bozkatuko dira, kontseilukideak izendatzearena edo berrestearena bereziki, aparte bozkatu beharko baita. Estatutu Sozialak aldatu behar direnean ere, berezia den artikulua edo artikulua multzo bakoitza bere aldetik bozkatuko da.

Halarik ere, akordio-proposamen bat onesten denean, gai horren inguruko gainerakoak (bateraezinak izanez gero) bertan behera geratuko dira automatikoki, eta, beraz, ez dute bozkatu beharrik izango.

dazkariak ez ditu zertan irakurri Batzar Nagusia baino lehen bazkideei helarazi zaizkien akordio-proposamenak, baldin eta boto-eskubidedun edozein parte-hartzailek eskatzen ez badu edo, bestela, lehendakariak komenigarritzat jotzen ez badu. Edonola ere, bozkatuko den akordio-proposamena gai-zerrendako zein punturi dagokion adieraziko zaie bertaratuei.

3. Oro har, eta lehendakariak erabakita beste sistema batzuk erabil badaitezke ere, akordio-proposamenak prozedura honi jarraiki bozkatuko dira:

(i) Gai-zerrendako puntuei buruzko akordio-proposamenak dedukzio-sistema bidez bozkatuko dira, honela: aldeko bototzat hartuko dira, bertaratutako edo behar bezala ordezkaturako bazkideek emandakoak ken (a) kontrako botoa nahiz boto zuria eman duten edo abstenitu diren bazkide bertaratu edo ordezkaturak eta (b) akordio-proposamena bozkatu baino lehen bileratik joan diren eta zer bozkatuko luketen kontu-hartzaileei idatziz jakinarazi ez dieten bazkide bertaratu edo ordezkaturak.

Bozketaren eraginetarako, eman diren aurkako botoez galdetuko du aurrena lehendakariak, eta, segidan, abstentzioez, hau da, ez da beharrezkoa izango aldeko botoak zenbat izan diren adieraztea.

- (ii) Gai-zerrendan ez dauden kontuei buruzko akordio-proposamenak, legean berariaz jasotakoari jarraiki posible denean, dedukzio-sistema bidez bozkatuko dira, honela: aurkako bototzat hartuko dira, bertaratutako edo behar bezala ordezkaturako bazkideek emandakoak ken (a) aldeko botoa eman duten edo abstenitu diren bazkide bertaratu edo ordezkaturak eta (b) akordio-proposamena bozkatu baino lehen bileratik joan diren eta zer bozkatu nahi duten kontu-hartzaileei idatziz jakinarazi dieten bazkide bertaratu edo ordezkaturak.

Bozketaren eraginetarako, eman diren aldeko botoez galdetuko du aurrena lehendakariak, eta, segidan, abstentzioez, hau da, ez da beharrezkoa izango aurkako botoak zenbat izan diren adieraztea.

Lehendakariaren ustetan komenigarria bada, onesteko behar diren aldeko botoak zenbatzea eta aktan jasota uztea ahalbidetzen duen beste edozein bozketa-sistema ezarri ahal izango du.

Edozein modutan ere, erabiltzen den bozketa-sistema erabiltzen dela, nahi duten bazkideek akordioaren aurka daudela jasoarazi ahal izango dute aktan. Horretarako, bozketa ahoz egin ez bada, idazkariari adierazi beharko diote aurkaritza berariaz.

4. Ordezkari bakarrak ordezkaritza bat baino gehiago dituztenean, aldeko eta aurkako botoak eman ahal izango ditu, ordezkaturak dituen bazkideek emandako jarraibideen arabera.
5. Kontu-hartzaileak (Estatutuetan aurkakoa adierazi ezean), lehendakaria eta idazkaria arduratuko dira botoak zenbatzeaz.
6. Hala ere, bozketak ezkutukoak izango dira, indarreko legediak eta Estatutu Sozialek ezartzen dituzten kasuetan.

7. Arautegi aplikagarriaren arabera interes-gatazka duen bazkideak ez du botorik emango interes-gatazka sortzen dion gaiaren inguruko akordio-proposamenetan. Horrela, bada, bere abstentzioaren berri eman beharko dio berariaz idazkariari, eta bere borondatez aurkeztutako abstentzioa arrazoi horregatik izan dela jasoaraziko da aktan. Bazkideak bere borondatez abstenitu gura ez badu, gatazka sortu dela jasoaraziko da aktan, eta botoen berri ematen denean, bazkide horren botoa aintzat hartuta eta hartu gabe egingo da.

20. Artikulua - Erabakiak hartu eta bukatzea

Bertaratutako edo ordezkaturako bazkide bakoitzak Estatutuetan aurreikusitakoaren arabera dagokion boto kopurua izango du. Indarreko arautegian eta Estatutu Sozialetan aurreikusita dauden suposamenduetan izan ezik, baliozki adierazitako botoen erdia gehi batekin hartuko ditu Batzar Nagusiak erabakiak. Zuri emandako botoak eta abstentzioak ez dira kontuan hartuko. Kasu bakoitzerako beharrezko gehiengoa lortzeko nahikoa aldeko boto dagoela ziurtatzen duenean onartuko ditu lehendakariak akordioak. Halere, bazkideek edo haien ordezkariak beren botoaren nondik norakoaren berri eman ahal izango dute.

Gai-zerrendako puntuak landu eta, dagokienean, deliberatu ostean, bukatutzat joko du lehendakariak saioa.

21. Artikulua - Akta

Batzar Nagusiaren akta saioko idazkariak idatziko du, eta Estatutu Sozialek eta indarreko arautegiak une bakoitzean eskatzen dituzten inguruabarrak adieraziko ditu.

Saioaren akta indarreko legedian edo Estatutu Sozialetan aurreikusita dauden bitartekoez onetsi ahal izango da.

Hala legeak eskatuta nola Kontseilu Errektorearen erabakiz Batzarrean notariarik badago, horixe izango da notario-akta jasoko duena. Onetsi egin beharko da eta Batzarraren akta moduan hartuko da. Notarioaren zerbitzu-sariak kooperatibak ordainduko ditu.

22. Artikulua - Ordezko jarduera-araubidea

Titulu honetan aurreikusitako guztirako, Batzar Nagusiari aplikatzekoa den arautegia (legezkoa nahiz estatutuena) bete beharko da.

III TITULUA - ERABAKI SOZIALEN PUBLIZITATEA

23. Artikulua - Erabaki sozioalen publizitatea

1. Legearen, Estatutuen edo Araudiaren arabera bete beharrekoak diren publizitate-neurriez gain, edozein bazkidek edonoiz eskura dezake hartutako erabakien egiaztageria, baita Batzar Nagusiaren bilereetan onetsitako aktarena ere.
2. Ordezkeriak Batzarraren aktaren egiaztageria bidali beharko dio ordezkatuari, azken horrek hala eskatzen badu. Ordezkeriak Kontseilu Errektorearen idazkeriari eskatu beharko dio egiaztageria, ordezkatuak eskatu eta hurrengo 10 egun baliodunen barruan.
3. Batzar Nagusiak hartutako erabakiak erregistroan inskribatu beharrekoak badira, aplikagarria den arautegiaren arabera, eskumena duen Kooperatiben Erregistroan eta Gipuzkoako Merkataritza Erregistroan aurkeztu beharko dira.

IV TITULUA - KONTSEILARIAK IZENDATZEA

24. Artikulua - Kontseilariak izendatzea

1. Batzar Nagusiak izendatuko ditu kontseilariak, Kreditu Kooperatiben Legean, horren garapen-xedapenetan, kooperatiben legeria orokorrean, Estatutuetan eta indarrean den gainerako arautegian aurreikusitakoaren arabera.
2. Kontseilu Errektoreak hautagai izendatu dituenak hautatu ahal izango ditu Batzar Nagusiak.
3. Hautesle bakoitzak, hutsik diren postuak betetzeko adina bazkide bozka ditzake.
4. Boto gehien jaso dituztenak hautatuko dira, eta, Estatutuetan finkatuta dagoenez, kontuan hartuko da lan-bazkideentzako postuak gordetzea.
5. Botoen arabera titular hautatu dituztenen atzetik gelditu direnak, kopuruz haien erdia, ordezko izendatuko dira. Hauteskunde-ekitaldi berean hautatutako titularren ordezkoak izango dira. Era berean, ordezko horiek beste hauteskunde-ekitaldi bateko titularrak ordezkatu ahal izango dituzte, ekitaldi horretako ordezkariarik ez badago.
6. Berdinketa gertatuz gero, Kooperatiban antzinasun handiena duen bazkidea izendatuko da titular edo ordezko.
7. Edonola ere, titularrek beren postua behin betiko utzi dutelako ordezkoek haien lekuan jardun behar badute, ordezkatupei geratzen zaien agintaldiaren zatian soilik jardungo dute.

Ordezkoek beste hauteskunde-ekitaldi batean aukeratutako titularren ordezkari jardun behar badute eta kontseilariaren agintaldia lehenago amaitzen bada ordezkoarena baino, azken horrek jardunean jarraituko du bere agintaldia amaitu arte.

25. Artikulua - Kontseilariak izendatzeko prozedua

1. Lan-bazkideek, bazkide kolaboratzaileek eta bazkide diren gainontzeko pertsona fisikoek eta erakundeek aurrehautagaiak aurkeztu ahal izango dituzte Kontseilu Errektoreko kideen hautaketara. Aurrehautagaia Kooperatibako bazkide izan beharko da.

Araudi honen eraginetarako, aurrehautagai da Kooperatibako Kontseilu Errektorera kide izateko hautagaitzat proposatutako bazkidea, proposamena aurkezteko beharrezkoak diren eskakizun eta izapide guztiak betetzen dituena eta ordura arte egokitasuna (Kooperatibako Kontseilariak eta Funtsezko Langileak Hautatzeko eta horien Egokitasuna Baloratzeko Prozedurari buruzko Eskuliburuarekin bat) eta kargurako duen gaitasuna eta bateragarritasuna baloratu ez zaizkiona, indarrean den arautegia kontuan hartuta.

Proposatutako bazkidea pertsona juridikoa bada, egokitasunari, gaitasunari, bateragarritasunari eta Kooperatiban aplikagarri diren bestelako eskakizunei buruzko arautegia bete beharko duen pertsona fisiko ordezkariaren identifikazioa ere jasoko du aurrehautagaitzak. Pertsona fisiko horrek ordezkatzeko duen bazkideak ere bete beharko ditu arautegi eta eskakizun horiek.

2. Kontseilu Errektoreak finkatuko du aurrehautagaitzak aurkezteko epea, eta Kooperatibaren webgunean argitaratuko dira bai epearen hasiera- eta bukaera-data bai aurrehautagaitzak aurkezteko modua (aurrehautagaiaren gutxienerako datuak, proposamena nora eta nola bidali eta abar). Informazio hori, epe hori hasi baino 5 egun natural lehenago argitaratuko da, gutxienez.

Aurrehautagaitza bazkide den entitateren batek aurkezten badu, bere Kontseilu Errektorearen edo pareko organoaren oniritzia beharko du.

3. Lan-bazkideentzako gordeta dauden Kontseilu Errektoreko postuetarako lan-bazkideek aurkeztuko dituzten aurrehautagaien proposamenak idatziz aurkeztuko dira eta Kontseilu Sozialak izapidetuko ditu, Kontseilu Errektorearen aurrean, organo hark horretarako finkatuta duen prozeduraren

arabera. Aurrehautagaien kopurua aipatutako titularren postuen hirukoitza izatera iristen ez bada, Kontseilu Sozialak bere kabuz osatu ahal izango du zerrenda.

Gainontzeko bazkideentzako gordetako postuetarako baliozki aurkeztutako aurrehautagaien kopurua ez bada bete beharreko titularren postuena baino 1,5 aldiz handiagoa, zerrenda Kontseilu Errektoreak osatu ahal izango du bere kabuz.

4. Aurrehautagaitzak aurkezteko epea amaitu ondoren, eta guztiek proposamena aurkezteko beharrezkoak diren eskakizunak eta izapideak betetzen dituztela egiaztatuta, Kontseilu Errektoreak aurrehautagaien zerrenda onartuko du.
5. Aurrehautagaien zerrenda onartu eta gero, Kontseilu Errektoreak jakinaraziko die aurkeztu behar duten informazioa eta epea, aurrehautagai horien egokitasunaren barne-balorazioa egiteko prozedura abian jartzeko.
6. Ezgaitasun- edo bateraezintasun-kausetan sartuta ez dauden aurrehautagai guztiak hautagai izendatuko ditu Kontseilu Errektoreak, betiere Kooperatibako Kontseilariak eta Funtsezko Langileak Hautatzeko eta horien Egokitasuna Baloratzeko Prozedurari buruzko Eskuliburuan eskatzen diren egokitasun-baldintzak betetzen badituzte.

Lan-bazkideen eta/edo gainontzeko bazkideen hautagai izendatu direnak ez badira iristen kopuruz bete beharreko titularren postuen hirukoitza edo 1,5 gehiago izatera, hurrenez hurren, Kontseilu Errektoreak gehienez kopuru horretaraino osatu ahal izango du zerrenda bere kabuz, Kooperatibako Kontseilariak eta Funtsezko Langileak Hautatzeko eta horien Egokitasuna Baloratzeko Prozedurari buruzko Eskuliburuaren arabera egokitasun-eskakizunak betetzen dituzten lagunekin. Horiek, Batzar Nagusian aukeratu ostean eta kargua bete aurretik, Espainiako Bankuaren egokitasun-balorazioa jaso beharko dute.

7. Kontseilu Errektoreak kontseilariak i.endatzeko prozedura gestionatuko du eta egoki deritzen epeak finkatuko ditu, bai bazkide interesdunek dokumentazioa aurkezteko, bai bere erabakiak hartzeko, betiere kontuan harturik prozesu osoaren epeak egokiak izan behar direla, bazkide interesdunek hautagai aurkezteko eskubideari begira eta hautaketa egin behar duen Batzar Nagusiaren egunari begira.

* * * * *